

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 671/2020 Erabakia, abenduaren 22koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren 2020rako enplegu publikoaren eskaintzari

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 23.1 artikuluan, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeran, xedatutakoarekin bat etorritik, "Administrazio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira"

Ordezkaritza duten sindikatuarekin negoziatu ondoren, enplegatu publikoaren oinarriko estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zenak, 37.1.1) artikuluan jasotzen duena betez, erabaki honen xede da onartzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren enplegu publikoaren eskaintza, non, jasotzen diren aurrekontu zuzkidura duten eta zerbitzu publikoak ondo funtzionatzeko horiek betetzea luzaezina dela jotzen diren lanpostu hutsak, sartuta enplegu eskaintzan bai sistema irekiz, bai barne sustapeneko sistemaz –sarbide sistema bietan txanda orokorrean zein ezinduentzako gordetako kupokoen bidez– bete behar diren plazak.

Langile berriak sartzeko aurrekontuan dauden mugei dagokienez, adierazi behar da, nola ez den onetsi Estatuaren 2020rako Aurrekontu Orokorren Legea, Konstituzioaren 134.4. artikuluan jasoriko xedapena aplikatuz indarrean dela Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren urtarrilaren 3ko 6/2018 Legea, zeinetatik eratortzen baita berrizatzeko nahikoa tasa dagoela gauzatzen ari den deialdietako plaza kopurua handitzeko, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako txostenaren arabera.

Aztertu dugu Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Arauan ezarritakoarekin bat etorritik emandako 1057/2020 zenbakiko arauen kontrol ekonomikoaren txostena.

Bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta bat etorritik ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoarekin: Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua -Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Foru Dekretuak aldatua-, Funtzio Publikoaren Arloko Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, eta funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, hona hartu den

ERABAKI DUT

Lehenengoa. 1. Onartzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura dauden funtzionarioen eta erabaki honen eranskinean jasotzen diren plazen 2020rako enplegu eskaintza.

2. Hautaketa prozesuak arrazionalizatzeko eta eraginkorrak izan daitezen, hitzarmen honetako plazak 2019ko laugarren enplegu eskaintza publikokoei erantsiko zaizkie. Eskaintza hori Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 828/2019 Erabakiak onartu zuen.

Bigarrenena. 1. 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 55. eta 56. artikuluetan jasotakoa betez, eskala bakoitzean gorde beharrekoak dira barne promozioz betetzeko aipatutako eranskinean jasoak.

2. Barne sustapeneko txanda orokorrean betetzen ez diren plazak sistema irekiko plazei gehituko zaizkie, giza baliabideak berriztatzeko tasatik ondorioztatutako gehieneko plaza kopurura iritsi arte.

Hirugarrena. 1. Bai urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testuategina onartzen duena) 59. artikulua, bai euskal funtzio publikoaren 6/1989 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria, bai araudi aplikagarria betez, lanpostu hutsen kopuru bat ezartzen da, ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonen bete beharrekoa, baldin eta hautaprobak gainditu eta bere garaian egiaztatzen badute aipatutako ezintasun maila.

2. Ezinduentzat gordetako plazak plaza arruntekin batera deituko dira, erabaki honen eranskinean ezarri denez, eta deitzen diren hautapen prozeduretan gainerako hautagaiek dituzten baldintza berberekin onartuko dira. Gainera, hala eskatzen duten ezinduentzat, hautaprobetan denbora eta baliabideak egokituko dira, baldin eta egokitzapen horiek proben edukia aldatzen ez badute edo horietan eskatzen den gaitasun maila gutxitzen edo kaltetzen ez bada.

Laugarrena. Aipatutako eranskinean derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazak zehazten dira, eta nahitaezkoa izango da betekizun hori betetzea plaza eskuratzeko.

Bosgarrena. Sartzeko sistema orokorra oposizio-lehiaketa izango da.

Seigarrena. Eskaintako plazak eskuratzeko prozedura eta betekizunak kasuan kasuko deialdietan zehaztuko dira, bigarren diputatu nagusiordearen eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren foru aginduz onartuko diren oinarrien arabera.

Zazpigarrena. Enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, enplegu publikoaren eskaintza 3 urte luzaezineko epearen barruan gauzatu beharko da.

Zortzigarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta honen laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA



ERANSKINA										
TALDEA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA ETA KLASEA	PLAZA	SISTEMA IREKIA				BARNE SUSTAPENEKO SISTEMA		GUZTIRA	
			TXANDA OROKORRA	EZINDUENTZAT GORDETAKO KUPOA		TXANDA OROKORRA	DDGHE			
				DDGHE	DDGHE					
								DDGHE		DDGHE
A (A1)	211	Ekonomia-Enpresa	----	1	----	----	----	----	1	
		Zuzenbidea	1	2	----	1	----	----	4	
A (A2)	15	Administrazio Orokorreko Erdi Mailako Teknikaria	3	3	----	----	1	1	8	
C (C1)	213	Automobilgintza, Teknikari Espezialista	----	8	----	----	----	1	9	
C (C2)	222	Korporazioko Auto-gidaria	----	1	----	----	----	----	1	
			4	15	----	1	1	2	23	

LABURTZAPENAK:

DDHE: DERRIGORTASUN DATADUN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA
DDGHE: DERRIGORTASUN DATARIK GABEKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

ESKALAREN KODEAK:

- 15: ADMINISTRAZIO OROKORRA - KUDEATZAILAK
- 211: ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK
- 213: ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - TEKNIKARI LAGUNTZAILAK
- 222: ADMINISTRAZIO BEREZIA - ZERBITZU BEREZIAK - LANBIDEETAKO KIDEAK